

Uztailak 4, 5 eta 6. DONOSTIAko EHU.

9:00-14:00

Ikastaro honen helburua antzerkiak eskaintzen dizkigun tekniketan entrenatzea da, gero horiek ikasleekin edo hainbat talderekin tresna pedagogiko moduan erabiltzeko. Antzerkia edozein ikasgaietan erabili daitekeen metodologia berritzaile eta sortzaile baliogarria izan daiteke.

➤ **Norentzat**

Irakasle, hezitzaile, gizarte langile eta garapen pertsonal eta sozialean interesa duen edonorentzat.

➤ **Landuko diren gaiak**

- Beroketa jolasak
- Gorputz adierazpenerako ariketak.
- Antzerki/drama estrategiak: irudi teknikak, inprobisazioak, eszenen sorkuntza, aulki beroa, irakaslea rolean, idazketa rolean, forum antzerkia....
- Desinhibizioa, gorputz adierazpena, sormena, autoezagutza, enpatia, emozioen adierazpena, gatazken konponbidea.

➤ **Metodologia**

Esperientzian eta ekintzan oinarritzen den metodologia oso dinamikoa erabiliko da estimulu ezberdinetatik abiatuta: egunkariak, ipuinak, margoak, argazkiak eta abar. Talde osoan, talde txikitan edo banaka landuko ditugu gai ezberdinak. Testuinguru babestu eta konfiantzazkoa eskainiko da, bakoi-tzaren erritmoa errespetatua izan dadin. Prozesua ondo ulertzeko, dinamizatzaileak behar diren azalpenak emango ditu, eta talde hausnarketari bere garrantziko lekua emango zaio.

* **Esther URIA.** Psikopedagogo eta Doktorea Hezkuntzan. Aktore profesional gisa antzerkian, telebistan eta zinean ere badu eskarmentua. Momentu honetan EHUko Hezkuntza Zientziako Sailean irakasle da. Bere ikerketa lerroa antzerkia eta bizikidetzan oinarritzen da.